


ezagutzen al duzu Donostia?

Urdaburu

Urdao. Urdau. Urdau. Urdaa. Urdanu. Urreburi edo Urdaburu mendia dugu Donostiako Udaldermioko altuena bere 598 metroekin. Urdaburu gainean muga egiten dute Hernani, Orereta eta Donostiako udal dermioek. Mendia izanik, bere gaina harkaitz handi sailkatu batzuek osatzen dute: Ependeko Arriya, Beluxeta, Urdao Aundiya, Gabiroyau Arkaitza, Belekabitako Arkaitza eta Urdao Txiki. azken honek Urdako txabala bertan duelarik. Hargorritz osaturiko mendi eder honetan, udazken honetan ere, bere pagoen urre kolore ederrek gure bistaren gozamen dira.

Igoi aldetik edo Akolatik begira Urdaburutaz



Urdaburu, Akola eta Saratsetako lepoko trikuharririk

entzundako hainbat Legenda harrigarri etoritzen zaizkiz burura. «Zaku-urria» galdu omen zen Urdaburu. dio legenda batek. Beste batek dioenez «Ouzako-urriak» edo «urrezko erlojua» omen dago hau artikiek bere hantekin ateratzeko moduan. Bada legenda harrigarriago bat ere: «Haurra galdu zen harriarena» Hernaniko Joze Oiartzabal jaunak kontatu zidan istorio triste

hau: «Garai batian ezkonberri batzuk jarri ziran Latzen, gizona basuan aitzen zuan, andria berri auntz kontuan eta errekan erropa garbitzen sosen batzuk ateratzeko... Une txiki bat ba omen zuen ta garai batian otsuak eta arranoak asko izaten omen zian; andriak erreka onduan xesto batian umia utzi eta Urdaburuko mendiyartatik etorri zuan arrano bat... ta umia artu

atzaparrekin ta... martxa!
Txiritak kantatu zuen bertso ori:»

«Ezkonberri bat mixerablia, auntz kontura etorriya;

bere aurtzua xestuan salba, zapi tartian jarriya;

Urdaburutik sartu zitayon, arrano gorriya;

Oartu gabe eramau tziyon, ura amaren larriya;

orain argatik deitzen diyogu, aurra galdu zuen arriya!»

JOSU TELLABIDE

Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

Erregina andrea

Erregina andrea
Españiako,
Isabel bigarrena,
bihotz barrangoa,
har ezazu oroipen
gurea gaurkoa,
leialtasun betiko
Donostiako.

Jakin genduenen
zure nahigabea,
ez da erraz esaten
gure dolorea,
pena, samin, negarra,
zorigaitz gurea,
barrena pixu eta
txelha arnasean.

Gero jakindu degu,
zorion gurean,
gaur jartzeko zinala
Atotxa-bidean.
Behingoan sendaturik
osasun betean,
esker ona ematera
Jauna-ren aurrean.

Guk ere gaur nahi degu
denbora berean,
ezker ona agertu
jaunaren oinean.
Bihotz osotik oititz
gure eginahalean,
gorde zaitzan, Isabel,
denbora luzean.

Zortziko honen bertsoak Jose Bizente Etxegaraik (1773-1855), jarni zituen eta beraientzako musika Jose Juan Santestebanek (1809-1884). Isabel erregina Donostian omen zegoen bisitan eta nonbait, osasun arazorik izan zuenez, bere zaleak kezkatuta zeuden. Baina pelotarena egiteko modu hau gogorregia da gaurko bela-rrientzat. 1852.ko otsailaren 15.ean kantatu zen aurreneko aldiz, Donostiako Antzoki Zaharrean egindako funtzio batean.